

GORA AITA PATXI!

1

Aita Patxi dagu gaur
kantagai bertsotan,
honelako aukerak
ez dira askotan.

Gaurkoz hauxe besterik
ez daukat gogotan:
itzartu gaitzala,
egon barik lotan.

2

Bi mila urte eta
hamaikagarrena,
jaio zanetik aurten
da mendeurrena.
Baserrian sortu dan
lore ederrena,
Jesukristoren usain
ona dakarrena.

3

Aita Patxi jaio zan
Arrieta-Libon
bera dala-ta pozez
dago aspaldion.
Hona herria aurten
zelan portau jakon,
Aita Patxiren partes
txalo ta zorion.

4

Aita Patxi hau dogu
gizon berbakoa,
berbaz laburra eta
egitez frankoa.
Egin egingo eban
behin esandakoa,
emondako berbea
atzera bakoa.



5

Norbait gaixorik egon
edo baztartuta,
laster inguratzen zan
autoestop hartuta.
Pasinoa hain eukan
barrura sartuta,
ekinean ebilen
maitez behartuta.

6

Gauza harrigarriak
niretzat ez dira,
ni haundi izango naz
txikian sikira".
Zuk, Aita Patxi, guri
zerutik begira
heldu gaitzean behintzat
zu zinan erdira.

7

Dizdiz dago izarra
zeru goiengan,
geuri lagundu nahirik
bide zuzenean.
Hona Euskalerrria
beharrizanean,
hauxe eskatzen dogu
zure izenean.

8

Ez da guzurra izan
gaurko kantaketa,
santu baten bizitza
ez da barriketa.
Bihotzez dinogu hau
merezi dau eta:
"Gora Aita Patxi ta
gora Arrieta"

A. Martzel